



Dokumentu mota / Tipo de documento: OSOKO ZUZENKETA
Nori zuzendua / Dirigido a: LEGEBILTZARREKO MAHAIA
Proposatzailea / Proponente: EGIBAR, JOSEBA (EA-NV)
Data / Fecha: 2021.04.14
Epediente zenbakia / Número de expediente: 12/11/03/00/00036

Ekimenaren izenburua / Título de la iniciativa: II. Errepublikak aldarrikatu zeneko 90. urteurrenari buruz // Relativa al 90 aniversario de la proclamación de la II República.

Eusko Legebiltzarrak, balio demokratikoetan eta norbanako giza eskubide zein kolektiboen defentsan oinarritutako errepublikar izaeraren printzipioekin duen konpromisoa adierazten du. Eta printzipio, balio eta eskubide horiek eratu behar dute zeinahi Estaturen hezurdura, bai ekintza politikoari dagokionez, bai gatazkak konpontzeko moduari dagokionez.

Eusko Legebiltzarrak, Euskal Herria autodeterminazio eskubidea duen subjektu juridiko eta politikoa dela adierazten du. Eskubide honen aitortzea eta ariketa dira euskal gizartearen garapen politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta linguistikoaren bermea.

El Parlamento Vasco expresa su compromiso con los principios del republicanismo basados en valores democráticos y en la defensa de los derechos humanos individuales y colectivos. Principios, valores y derechos que deben vertebrar cualquier Estado, tanto en su acción política como en la forma de resolver los conflictos.

El Parlamento Vasco declara que el Pueblo Vasco constituye un sujeto jurídico y político con derecho a la libre determinación y entiende su reconocimiento y ejercicio como garantía del desarrollo político, económico, social, cultural y lingüístico de la sociedad vasca.

JOSEBA EGIBAR ARTOLA